

Bizkaia**Güeñes****LA CONCHITA KOOPERATIBA
COOPERATIVA LA CONCHITA**

Gueñesen malda handiko muino batean eraikitako etxe merkeak dira, Kadagua ibaiaren ezkerraldean. La Conchita meategiko langile eta enplegatuek kooperativa-elkartea bat sortu zuten 1928an, eta handik bi urterat sustatu zituzten etxebizitzok (1930ean). Etxe Merkeen Legearen babespean eta enpresako administrazio-kontseiluko presidentek, Arestiko kondeak, utzitako lursailetan. Eraikin-multzo honetan euskal arkitektura erregionalista ederki dago egoituta etxe merkeen eraikuntzara. Estetika erregionalistak erabiltzen duen zurezko eta harrizko armazoiaren adibide bikaina dira; hala, eremu geografikoak eta kooperatibaren aurrekontuak posible egiten zuen aberastasun guztia dute etxeok, bai estiloari dagokionez, bai materialei dagokienez. Aipatzeko da etxeen egile Faustino Basterra, Sestako eta Barakaldo udal arkitektoa. Azken udal horretan bizileku merkeak sustatzeko eta hobetzeko batzordeko kide izan zen. Kargu horretan izandako erantzukizunari esker, gaia-ri buruzko jakintza zabala eskuratzearaz gain, era askotako etxe merkeak ezagutzeko aukera ere izan zuen, gero eredu modura erabili ahal izateko. Monumentu izendatu dute 2012an.

Conjunto de casas baratas emplazadas en un altozano de acusado desnivel en el municipio de Güeñes, en la margen izquierda del río Cadagua. Fueron impulsadas en 1930 por una sociedad cooperativa fundada dos años antes, en 1928, con obreros y empleados de la mina La Conchita, acogiéndose a la Ley de Casas Baratas y en terrenos cedidos por el presidente del Consejo de Administración de la empresa, el conde de Aresti. Este conjunto de edificaciones supone una interesante adaptación de la arquitectura regionalista vasca a la construcción de casas obreras. Constituyen un magnífico ejemplo del empleo de entramado de madera y piedra, de estética neorregionalista, con toda la riqueza de estilo y de los materiales que la zona geográfica y el presupuesto cooperativista permitían. Destaca también la figura de su autor, Faustino Basterra, que fue arquitecto municipal en los ayuntamientos de Sestao y Barakaldo, perteneciendo también a la Junta de Fomento y Mejora de la Habitación Barata de este último, un puesto de responsabilidad que le proporcionaría un amplio conocimiento en esta materia, además de ofrecerle un variado abanico de casas baratas en los que inspirarse. Ha sido declarado monumento en 2012.